

Liburuak

KRITIKA

Iparra galduta

Helduen literatura | ELEBERRIA

Saioa Ruiz Gonzalez

NORK pentsa zezakeen, hizki akats batek haizearen norabidea alda zezakeenik?

Rothner andereak “i” aurreko “e”-aren akats kronikoa du eta ez da horretaz jabetuko, *Like* aldizkariko harpidetza eteteko momentuan, Leike jauna delako baten erantzuna jasotzen duen arte. “Gabon zoriotsuak eta urte berri on” edota “poz-tuko naiz berriro ere halabeharrez nire helbidean galtzen bazara” bezalako mezu axolagabe baina erakargarriekin jolasean ari direla, ezusteko *feeling*-a sortuko da. Handik aurrera, aitorten eta sentimendu sakonenez kargatutako trukaketa epistolarrari ekingo diote. Posta hartu-emanetan garatuz joango den elkar ezagutze prozesu zibernetikoa ez da harpidetza etetea bezain erraza izango. Ibilbide horretan zehar gainditu behar izango dituzten oztipoetan datza Daniel Glattauer idazle austriarraren *Ipar haizearen kontra*.



Leo eta Emmi. Emmi eta Leo. Izena dute abiapuntu bakarra, baina zehaztugabeak dira. Ez dute inoiz elkar ikusi,

Ipar haizearen kontra.
Daniel Glattauer.
Batera saila, Alberdania, 2012.
Itzultzailea: Irati Elorrieta Agirre.

edo ikusi badute ere ez dakite. Azken finean, zer axola du? Adinik ez, fisikorik ez... zer dira baina? Leo eta Emmi errealitate fisikotik kanpo bizi diren hitzak besterik ez dira. Elkarri idazten diotenetik eraikiz joango diren fantasiatzko irudi birtualak.

Laster batean irakurtzen diren ironiaz zein umorez jositako email egituradun elkarrizketa laburretan, sentimendu konplexu eta paradajikoenak loratuz doaz: ezinbesteko bilakatu den, baina gure egiazko munduaren parte ez den pertsona batekiko menpekotasuna, fisikotik urrunago garena komunikatzeko beharra, pertsonalki ezagutzeko irrika eta laztanen desira, baina gustuko ez izateak eragindako oinazea. Helduko al dira inoiz, errealitate bilakatu dituen kontaktu fisikora? Emmik dioenez “erantzunik izango ez dutelako kitzikagarriak gertatzen zaizkigun galderak egiten ditugu”, eta aurre-rago galdetuko du: “Leo, ezagutu nahi nauzu?”. Galdera horren erantzunak zintzilik irauten duen bitartean, soilik, zilegi izanen da elkarren artean sortutako *feeling*-a elikatzen jarraitzea. Hura baita, alde zurretiko morboa piztuta mantentzeko ezinbesteko sugarra.

Idazleak topaketa egunerako prestatzen gaitu eleberraren amaieran. Izan ere, gertakari batekin harritzen gaitu, zein da gertakari hori? Berriz ere, haizearen norabidea aldatuko duen hizki akats bat.



tradebi

EB Traducciones Itzulpenak, S. L.

www.tradebi.com